

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

1. Elkarlan sariak 2017 2



1.- Izenburua

Elkarlan sariak 2017

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko irailaren 14koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa balera sortzeko proiektuetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien hirugarren deialdia onesten duena (2017. urtea).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lau proiekturi sari ematea. Proiektu horiek osasunaren, ingurumenaren, garapen ekonomikoaren, ikasketa – kulturaren, kohesio sozialaren eta open data kulturaren jarduera-eremuetan eragina izateaz gain, balio publiko partekatua sustatu eta gizarteko erronkak eta beharrak ase behar dituzte, eta diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsona eta kolektiboen ahalduntze-prozesua sustatzeko gaitasuna erakutsi beharko dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako 18 ekimenen artean, 4k saria jaso dute, berritzaileak eta eredugarriak izateagatik eta herritarren ahalduntzea sustatzeagatik. Aurkeztutako proiektuek kohesio-soziala, ikasketa kultura, garapen ekonomikoa, osasuna, ingurumena eta open data esparruetan dute eragina:

Saritutako ekimenak honako hauek izan dira:

- Emakumeen jabekuntzarako Donostiako Emakumeen etxea: kohesioa eta ahalduntzea, Emakumeen Jabekuntzarako Donostiako Emakumeen Etxea Elkartearen proiektua.
- Hiri lagunkoiak pertsona guztientzat: aps ciudadano en accesibilidad urbana con open street map, Zerbikas Fundazioaren proiektua.
- Bilbao data lab, Pablo Rey Mazón eta Jon Berna! Zubiri Rey-ren proiektua.
- Saregune: por un uso social y comunitario de la tecnología, Sartu Alava Elkartearen proiektua.